

HILOBIAK

Álvaro Díaz de Esquivel eta Ana Díaz de Salinas

Nitxo formako horma-hilobi bat da, Álvaro Díaz de Esquivel eta Ana Díaz de Salinas senar-emazteen irudi etzanak dituen. XVI. mendearen lehen herenaren barruan egina dela uste da, eta Lehen Errenazimentuko estiloari jarraitzen dio. Hiru atal ditu. Lehenengoan, senar-emazteen familien armarriak daude, Esquivelenak ezkerrean eta Díaz de Salinasenak eskuinaldean, giraldek inguratuak. Bigarrenean, landare-motiboekin eta *candelieri* eran apaindutako horma-hobi batek aterpetuta, senar-emazteen irudi etzanak daude. Álvaro Díaz de Esquivel eta haren emazte Ana Díaz de Salinas hilobi-ohean dautza, buruak kuxinetan jarrita eta gorputzak plano inklinatu batean kokatuta, atzean dagoena ikustea errazteko. Garaiko modan jantzita eta jarrera lasaian irudikatuta daude biak, patxadan atsedean hartzen eta otoitz egiteko posturan, senarra brebiario batekin eskuan eta emaztea eskuak elkartuta. Goialdean, erremate gisa, maskor itxurako tinpano bat eta senar-emazteen arma-ikurrak ditugu. Egikerari dagokionez, antzekotasunak ditu Burgosko Lehen Errenazimentuko ereduekin.



Egilea: Anonimoa

Data: XVI. mendearen lehen herena

Teknika: Harri landua

Neurriak: 430 x 273 x 140 cm inguru

Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz)



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)". En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, p. 105.

ECHEVERRIA GOÑI, Pedro L. "Renacimiento", En: GONZÁLEZ DE SAN ROMÁN, Miguel (dir.). *Vitoria-Gasteiz en el Arte*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, vol. 2. 1997. pp. 338-342.

MARTÍN MIGUEL, María Ángeles. *Arte y cultura en Vitoria durante el siglo XVI*. Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 1998, pp. 313-318.



Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak
Tel. 945 255135
www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz